



Kaixo lagun:

Asteko eta behin eskerrik asko oporrak bakean programari buruzko informazio gehiago eskatzeagatik.

Ondorengo lerroetan Oporrak Bakean programaren inguruko informazioa ematen saiatu gara, bere sorrera, zergatia, protagonista ezberdinak eta bakoitzaren konpromezuak, parte hartzeko pausoak, gomendioak...

Ahalik eta informazio gehien jarri nahi izan dugu, baina ahalik eta era laburrenean. Saharar herriarekiko informazio asko dago idatzita (liburuetan, artikuluan, interneten...); bideo, dokumental eta pelikula formatuan ere hainbat gauza daude; horregatik beste mota bateko informazioa eskuratzera animatzen zaitugu, saharar herria urte luzez eta isilean luzatu den borrokan biziraun du eta borroka honetan daudela zabaltzea eta jakitea garrantzitsua da.


Oporrak Bakeanera hurbiltzen den oro, nahigabea, herri sahararrak biziraute duen egoerara ere hurbiltzen da eta nazioartean isilean dagoen egoeraren jakitun suertatzen da. Horregatik da oporrak bakean saharar herriaren bozeramaile handia.

Hau guztiagatik, eskerrik asko saharar herrira gerturatzeagatik!

SORRERA

1979an Oporrak Bakean saharar herriak bizi zuen salbuespen egoeraren ondorioz sortu zen.

1976tik saharar herria zatiturik bizi da.



Babestu gure borroka Mendebaldeko Sahararen okupazioaren aurka:
www.mundubat.org/babesa-eman

Errefuxiatu kanpamentuetan bizitzera behartu zituztenak Argeliako Hamadan bizi dira, desertuko tokirik gogorrean.

Bertan dagoeneko hirugarren belaunaldia jaio da eta jaiotze egunetik egoera gogorrei aurre egin behar diete.

Jakina den moduan, errefuxiatu egoerak eta lekuko zailtasunen ondorioz, bizirauteko beharrezkoak direnak kanpo laguntzaren bidez iristen dira.

Oporrak bakean proiektua, gerratearen irrazionalitatearen ondorioz baztertuak izan ziren saharar herriarekiko elkartasun keinua da. Bakearen aldeko eta gerratearen kontrako oihua da. Proiektu honek, saharar neska mutilen gure neska mutilen artean

bizitzeko aukera eman nahi die, munduarekiko beste ikuspuntu bat izateko aukera eman nahi die, desertuko egunerokotasunetik oso ezberdina den errealitatea ezagutzeko aukera eman nahi die.

FUNTSAKETA

Oporrak Bakean sortzeko beharra ulertu ahal izateko saharar herriaren gertuko historia jakin beharra dago.

Saharar herria, herri nomada bezala bizi zen, tribaltasunean oinarrituta.

1885 sahararrek lehen aldiz mugak ezagutu zituztenean. Berlingo konferentzian europarrek afrikar kontinentea banatu zuten. Bertan Espainiari saharar lurraldea egokitu zitzaion baina 1958 arte ez zen espainiar probintzia bezala izendatu.

1963an Espainiak munduko fosfato erreserba handiena topatu zuen. Honek betiko aldatuko zuen saharar lurraldea. Urte berean Nazio Batuek Mendebaldeko Sahara deskolonizatu beharreko herrien zerrendan sartu zuten eta bi urte beranduago deskolonizatzeko agindua eman zion Espainiari. Paraleloki sahararrekin independentzia negoziatzen hasi zen. Egoeraz jabeturik, Hassan IIak lurraldea Marokorena izan zela adierazi zuen.

1968an Sidi Brahim Bassirik zuzendutako askatasunerako mugimendua sortu zen.

Bassiri 1970ean erail zuten independentziaren aldeko manifestazio batean. Ekintza hark, samina eta gaitzespena piztu zituen sahararren artean, eta, ondorioz, eztanda nazionalista eragin zuen.

1973an Fronte Polisarioa sortu zen.

1975eko urriaren 16an, Marokoko erregeak Hagako Auzitegian saharar lurraldearen egoerari buruzko kontsulta burutu zuen. Lurraldea handitzeko helburua zuenez, aukera guztiak aprobetxatzen zituen. **Hagako Auzitegiak Sahararen deskolonizazioa agindu zuen.**

Maroko eta Mauritaniako agintariak, honi kasurik egin gabe, euren tropak bidali zituzten saharar lurraldea indarrez hartzen hasteko

helburuz. Ekintza honi, **Marokoko erregeak** Martxa Berdea deiturikoa gehitu zion eta **350.000 zibil marokiar eta 25.000 soldadu marokiar bidali zituen Saharako lurraldea kolonizatzeraz.**

Orduan, Gerra Hotza zegoen indarrean Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren artean.

Estatu Batuek eta Frantziak Espainia estutu zuten Marokorekin gerrarik ez egiteko. Ondorioz **azaroaren 14an Madrileko Hirukoen Hitzarmena sinatu zen Espainia, Mauritania eta Marokoren artean.** Hitzarmen honen ondorioz, Espainiak Mendebaldeko Sahara Maroko eta Mauritaniaren esku utzi zuen. Sahararrek erbesterantz ihes egin behar izan zuten, marokiar armadak fosforo zuriz eta napalmez bonbardatu zituelako.

Aljeriak, Errusiaren aliatu nagusiak, Fronte Polisarioa babestu zuen, eta Estatu Batuek eta Frantziak Maroko babestu zuten. Eta urte askotako gerratea hasi zen.

1985ean, "Gerra Hotza" bukatu zenean, amerikarrek Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko gerratea bukatu behar zela adierazi zuten. **Nazio Batuen bidez, bake akordio bat negoziatu zuten, oinarrian autodeterminazio eskubidea zuena.**

Ordutik autodeterminazio eskubidearen zain jarraitzen dute.

2020ko azaroaren 13an bake akordioa puskatu zuen marokok, Guerguerat-en (Mendebaldeko Sáhara hegoaldean dago) errekurtsio naturalen hustiapenagatik protestan zeuden saharar zibil talde bat erasotu zuenean. **Ordutik, gerran daude** lotsaren harresia erdian duten saharar soldadu eta marokiarrak. Eta ordutik gerraren ondorioak sufritzen dituzte, hogeina saharar hil direlarik. Gainera errefuxiatu kanpamentuetako egunerokotasuna zaildu du, lantxoak (dendari, txofer...) zituzten gizonezkoak gerrara joan dira eta ekarpen ekonomiko txiki hori gabe geratu dira beraien familiak. Familiak hiru edo sei hilabetetik behin, soldadu doan senideaz agurtu eta bere itzuleraren zain geratzen dira. Nazioartera isilik mantentzen den gerra bizi bizirik dago 2020ko azaroaren 13tik.

ZERGATIK ETA ZERTARAKO OPORRAK BAKEAN?

Programaren baitan helburu ugari betetzen dira. Programa hau biziraute programa moduan sortu zen eta gaur egun ere bizirauteko behar beharrezkoa duten programa da.

Saharar errefuxiatu guneetan bizi diren biztanle kopurutik %15 0 eta 14 urte bitartekoa da. Haur, gazte eta haurdun dauden emakumeen artean anemia dutenak % 90 inguru dira. Horrek gaitz hau kronikoa bihurtu dela esan nahi du. Horrela haurrak gaixotasun honekin jaiotzen dira eta hazten doazen heinean berarekin jarraitzen dute. Honek hazteko zailtasunak eta maiz gaixotzeko ondorioak ekartzen dizkielarik.

Gainera nahiz eta herri guztietan anbulategiak izan eta medikuak izan, gaixotasun errazenak sendatzeko ere botikak falta zaizkie eta gaixotasun hauek sendatu beharrean, handitu egiten dira.

Urteetan zehar lehen ikusten ez ziren gaixotasunak sortzen joan dira, gehienak elikadura falta edota txarragatik.

OPORRAK BAKEAN EUSKAL HERRIAN

Urteak dira saharar haur talde bat Euskal Herrira lehen aldiz iritsi zela eta urte guzti hauetan programa honek dituen helburuak betez, adin ezberdinetako haurrek osasuna berreskuratzen dutela ikusi da.

Programaren baitan bi hilabetez desertutik irteteko aukera ematen zaie, modu honetara udan egiten dituen 60°tik gorako tenperaturetatik babesten zaielarik.

Gainera bi hilabete hauetan elikadura orekatua izaten dute, oinarrizko 5 otorduez baliaturik beharrezkoak dituzten bitaminak jasotzeko aukera dute eta anemia kentzeaz gain negu gogorrari aurre egiteko indarrak hartzen dituzte.

Bestalde oinarrizko osasun azterketak egiten zaizkie eta izan ditzaketen gaixotasun txikiak sendatu. Normalean ikusmenean eta belarrietan egoten dira arazoak, desertuko klimaren ondorioz. Orokorrean denek osasunean irabazten dute.

Neska eta mutil hauen bidaiak, urte guztian zehar Dairetako (herrietako) eskoletan izan duten hezkuntzaren gehigarri ere izaten da. Beste kultura, ohitura eta hizkuntza ezagutzen dutelako.

Ezaugarri guztiak baturik haurrei euren herriaren askatasunaren aldeko borrokan lagungarri zaielarik.

Proiektuak dituen helburuak:

- Herri sahararren eta herri euskaldunaren arteko gertutasuna sortu eta bultzatu. Euskal gizarte osoa sentsibilizatzeko nahia dute euren herriaren enbaxadore txikiek.
- Euren egunerokotasunean falta zaizkien guztiekin, bizitzeko modu berri bat deskubritzen eta disfrutatzen dute gure lurraldean. Era berean, harrera pertsonak balore eta sentsazio berriak ezagutzen dituzte, gauza txikiek duten baloreaz jabetuz eta "arazoak" erlatibizatuz.
- Proiektuko parte hartzaileen osasun azterketak erraztu eta behar dutenei espezialistetara zuzendu. Osasun azterketak burutu, beharren arabera tratamenduetara zuzenduz. Errefuxiatu kanpamentuetan aurrera eraman ezin diren tratamenduak izan ohi dira.
- Saharar haurren eta euskal haurren arteko kultur trukaketa burutu.
- Haur sahararrek urte osoan zehar duten egoeratik oso ezberdina den errealitate batean bi hilabete igaro dezaten lortu.
- Bi hilabeteetan zehar otordu orekatuak burutu, beharrezko nutrizio mailak berreskuratzen laguntzeko.

OPORRAK BAKEANEO PARTEHARTZAILEAK

Saharar Gobernua (Gazteria eta Kirol Ministeritza)

Saharar errefuxiatu kanpamentuetako antolakuntza Saharar Gobernuagatik dago antolatuta. Oporrak Bakean programaren arduraria Gazteria eta Kirol Ministeritzak du.

Ministeritza honetan teknikoak daude guztia antolatzen eta tekniko horietako bakoitza sektore ezberdinez arduratzen da. Gure kasuan bigarren sektoreko teknikaria da gure arduraduna.

Ministeritzak Espainiar Estatuko Fronte POLISARIOko Ordezkariekin egiten du koordinaketa, eta honek tokian tokiko Ordezkaritza ezberdinekin.

Euskadiko Ordezkaritzak ondoren irakurriko duzun bezala, Lan Talde bat osatua eta Lan Talde honek zonalde bakoitzeko elkarte edota udaletxeekin koordinatzen du. Eta azken hauek harrera familiekin.

Ministeritzak era berean, Wilaya bakoitzeko ordezkariarekin koordinatzen du lana, hauek daira bakoitzeko ordezkariarekin eta hauek familia biologiko eta hurrekin.

Gazteria eta Kirol Ministeritzaz gain, Garraio Ministeritza, Hezkuntza Ministeritza eta Osasun Ministeritzak ere parte hartzen dute Oporrak Bakean programan.

Oporrak Bakean Lan Taldea

Oporrak bakean lan taldea 2009. urtean sortu zen Euskadiko Fronte POLISARIOak horrela eskatuta, harrera programa koordinatu ahal izateko. Oporrak Bakean programa, Euskadiko Fronte POLISARIOko Ordezkaritzak eta Euskadi mailako saharar lagunen elkarte edota udaletxe ezberdinen arteko elkarlan moduan gestionatzen da. Partaidetza handia denez, guztia koordinatzen laguntzeko asmoz sorturiko lan taldea da.

Lan taldea hiru probintzietako pertsona boluntarioekin, Euskadiko Fronte POLISARIOko Ordezkariekin eta Euskal Fondoarekin dago osatua.

Lan taldeak aurrera eramaten dituen funtzioak honako hauek dira:

- ★ Saharar Errefuxiatu Kanpamentuetan Oporrak Bakean programa gestionatzen duten arduradunekin koordinatu.
- ★ Urteko kronograma antolatu.
- ★ Euskadiko elkarte edo udaletxeetako arduradunek bidalitako informazioarekin zerrendak eratu eta errebisatu.
- ★ Saharar Errefuxiatu kanpamentuetako arduradunei zerrendak helarazi.
- ★ Beharrezko agiriak osatu eta elkarte edo udaletxe bakoitzari bidali. Hauek behar bezala osatu ondoren, berriro lan taldera berbidaltzen diete.
- ★ Familia berriak topatzeko kanpaña osatu: leloa, kartela... Komunikabideetara informazioa bidali, sare sozialetan mezuak zabaldu...
- ★ Aldundietako Familia Harrera eta Adopzioko atalak, haurren bisadoa ateratzeko beharrezkoa den oniritzi txostena egin dezan, beharrezko eskaera burutu.
- ★ Gobernu Subdelegaritzan haurren bisatuak eskatzeko beharrezkoa den oniritzi txostena eskatu, Aldundiko oniritzi txostenak eta bildutako agiriak erabiliz.
- ★ Gobernu Subdelegaritzak emandako oniritzia Saharar Gobernuari bidali, honek haurren talde bisatuaren onarketa eskatu dezan.
- ★ Haurrak osasun aldetik babestuak egon daitezen, Euskal Osasun Zerbitzuan erregistratu daitezen beharrezko agiriak Osakidetzari bidali. Haur bakoitzaren agiriak elkarte edo udaletxe bakoitzari bidali (osasun txartela).
- ★ PADIko baimenak burutu (odontología)
- ★ Erresponstabilitate zibileko aseguruak kontratatu.
- ★ Haur bakoitzaren karneta pertsonalizatuak egin
- ★ Agiri guztiak eginak daudenean, taldetxo batek saharar errefuxiatu kanpamentuetara bidaiatuko du, haurrak banan banan errebisatu eta osaturiko agiri pertsonalizatuak entregatuz. Saharar ordezkari eta koordinatzaileekin, bilera ezberdinak izaten dira, irteerako zehaztapenen inguruan.
- ★ Haurren etorrera eta joana antolatzeko beharrezko baimenak eskatzen dira Aena, Aduanako Poliziari eta Iberiari.
- ★ Haurrek bidaiatzen duten eguna antolatu: autobusak eta kiroldegia eskatu; haurrak hegazkiñetik jetsi ahala hurrei gosaria eman, taldeka antolatu eta elkarte edo udaletxeetako ordezkarien esku uzten ditu haurrak.
- ★ Haurrak gure artean dauden epe horretan, lan taldea irteera antolatzeko lanean dihardu. Zerrendak berrantolatzen ditu,

berrero aireportuan beharrezko baimenak eskatzen dira eta elkarte eta udaletxeekin koordinatzen gara irteera ondo antolatzeko.

- ★ Behin haurrak saharar errefuxiatu kanpamentuetara itzultzen direnean, martxan dagoen urteko baloraketak antolatzen ditugu, gaizki egindako gauzak hobetzeko eta denon artean urtetik urtera programa ahalik eta hobeto funtzionatzeko.

Lan taldeak 12 hilabete pasatzen ditu programa gestionatzen, elkarte edo udaletxeetako arduradunekin eta errefuxiatu kanpamentuetako arduradunekin.

Lan taldeak beharrezko gestioak gauzatzen ditu, ondoren elkarte bakoitzak egokien ikusten duen moduan programarekin lan egin dezan, lan talde honek EZ DU OZTOPATU NAHI ELKARTE EDO UDALETXE BAKOITZAK (elkartera ez dagoen tokian) PROGRAMAREKIKO DUEN GESTIOAN.

Saharar herriaren aldeko elkarteak edota udaletxeak:

Haurren zonaldeko arduradunak dira.

Eta hauek dira beraien egiteko eta konpromezuak:

- ★ Adintxikien ongizatea berretsi behar dute.
- ★ Zerrendan dituzten haur guztiez arduratu behar dute. Horretarako harrera familia bat bilatuz edo horretarako posibilitaterik ez dagoenean bere bidaiaren eta manutentzio gastuei aurre eginez.
- ★ Proiektua ahalik eta gehien zabaldu, ahalik eta harrera familia gehien lortzeko
- ★ Harrera familiak aukeratu (beharrezko elkarrizketak, bilerak... gauzatuz).
- ★ Aurretik Euskadiko Fronte POLISARIOko ordezkariak eta Oporrak bakean Lan Taldeak ezarritako aurrekontuko kostuari aurre egin behar diote (bidaia, bisadoa, begiraleen kostuak...).
- ★ Antolaketa prozesua aurrera eraman, programa bakoitzak nahi duen bezala antolatuz.
- ★ Adintxikiei jarraipen bat egin, familian izan ditzakeen arazoak konponduz
- ★ Sortu daitezkeen gauzen inguruan ekin, ahalik eta erantzun positiboena topatzeko
- ★ Probintzia bakoitzeko arduradunekin kontaktua mantendu

Harrera familiak

Elkarte edo udaletxeekin bat, haur sahararren ardura zuzena dutenak dira. Eta hauek dira beraien konpromezu eta egitekoak.

- Adintxikiaren eskubideak, kultura, erlijioa errespetatuz euren etxean abegitu, mantendu, babestu eta zaindu.
- Programako arduradunekin elkarrizketa bat mantendu, programaren inguruko informazioa jasoz eta harrera familia egokia den ala ez erabakitzeko asmoz.
- Elkarateak edo udaletxeak beharrezkotzat jotzen dituen ekintzetara adintxikiarekin joan.
- Programaren herriko arduradunen adierazpenak errespetatu eta jarraitu
- Zaintza ematen den bitartean osasun errebisioak egin eta sortzen diren mediku arazoak konpondu.
- Adintxikikoarekin sortzen diren arazoez (osasun edo portaera) herriko arduradunei informatu, hauek beharrezko erabakiak har ditzaten.
- Herriko arduradunek adintxikoarekin behar duten komunikazioa erraztu.
- Ez hasi, inondik inora ere, inolako adopzio prozesurik.
- Beharrezko osasun azterketak egin ondoren, horrela nahi duten harrera familiak oportetara joan ahalko dira (espainiar estatuan), herriko arduradunak haurra non izango den informatuz eta bertako telefono kontaktua elaraziz.
- Derrigorrezkoa izango da, haurra helbideratua dagoen etxean izatea, kanpamentuetara bidaiatzeko datatik bost eguneko epera. Bidaian aldaketarik izango balitz haurra lokalizatua egon dadin.
- Familiak edozein gauzetarako herriko arduradunarekin kontaktua mantendu ahalko du, horretarako aurretik adieraziko den telefono zenbakia erabili daitekeelarik.
- Haurraren itzulerarako eman diren oharrak bete beharko ditu, aireportuan edo haurrak jasoko den tokian egon beharreko ordua, bidai boltsaren eta eskuko boltsaren pisua
- Adierazitako arauak beteko ez balira, arduradunek adintxikia babesteko helburuz edozein erabaki hartzeko eskubidea izango dute.

Haur sahararrak:

Saharar Gobernuak zerrendatuak dituen 8 eta 12 urte bitarteko neska eta mutilak dira.

Hauei osasun gaiak direla eta, programan berriro parte hartzea komeni zaien haurrak gehitzen zaizkie. Horretarako eskaera zehatzak egingo da irailan Oporrak Bakean lan taldeari eta hori adierazten duen Osakidetzako txostena izatea derrigorrezkoa izango da.

Lehen aldiz, programan parte hartuko duten haurren artean, Euskadiko programan parte hartu duten haurren senideak izan daitezke. Senide zaharrenaren harrera familiak, lehen aldiz parte hartuko duen haurren datuak eskuratuz, Oporrak Bakean Lan Taldeari eskaera gauzatu ahal dio elkarte edo udaletxearen bidez eta Lan Taldeak Saharar Gobernuari gauzatu dio eskaera.

GOMENDIOAK

Ez ditugu ezagutzen Euskadira lehen aldiz bidaiatuko duten haurrak, zerrendak Saharar Gazteria eta Kirol Ministeritzak egiten baititu.

Haurrak iritsi aurretik bidaliko zaizkigu zerrendak (bisatuak tramitatzeko), eta informazio hori elkarte edota udalei helaraziko zaie. Iritsi baino aste batzuk lehenago, familiak izen-abizenak ezagutuko dituzue (lehen abizena aitaren izenari dagokio eta bigarren abizena amarenari), amaren datuak eta bizi diren wilaya (probintzia) eta दौर (herria).

Zuek familia gisa aurkezpen eskutitza egin dezakezue, eta eskutitza baliatuz familia sahararrarekin lehen harremana ezartzen saiatuko gara. Baina lasai, zuen inguruko arduradunek gogoraraziko dizuete.

Haurrak zehazki ezagutzen ez ditugunez, ondoren azaltzen direnak gauza orokorrak, eta bizitako esperientzietatik ateratako ondorio eta ideiak dira. Kontuan hartu beharreko alderdiak dira, haur sahararrek ezaugarri berezi batzuk baitituzte.

Alderdi horiek ezagutzeak harrera egiten diozun haurren egonaldi zoriontsuagoa lortzen lagunduko ditu.

1. - GORPUTZEKO HIGIENEAREN ZAINKETA

Saharar errefuxiatuetan ur korronterik ez dagoenez, ez daude ohituta gure zainketa higienikoetara. Horregatik, pazientziaz eta kontu handiz ondorengo gai hauek azaltzea eta irakastea gomendatzen dizugu. Komunaren erabilpena, komuneko paperaren erabilera, dutxa, hortzak garbitzea, eskuak behar bezala garbitzea, azkazalak moztea, ile-lehorgailuak nola erabiltzen diren azaltzea... orokorrean garbiketarekin zerikusia dituzten gauzak.

Bizi diren ingurunearen baldintzak direla eta, hesteetako eta gorputzeko parasitoak izan ditzakete. Hesteetako parasitoak (zizareak) pediarraren irizpidearen arabera tratatu beharko dira. Zorrirentzako tratamendua pediarrari itxaron gabe has daiteke, bereziki horretarako diren txanpuarekin, lozioekin eta gelekina garbituz. Ilea moztu behar dela uste baduzue, aurretik familia biologikoari galdetu behar diozue.

2.- ALDERDI PSIKOSOSIALAK

Hasieran lotsa, nostalgia edota izaera ez fidagarria izan dezakete eta normala da, ingurune ezezagun batean, ohitura desberdinekin, familia biologikotik urrun, hizkuntza ezberdin batekin... edozein pertsonak ere horrela jokatu luke.

Lehen egunetan hain normala den jarrera hori pixkanaka aldatzen joango da, ulermenarekin, pazientziarekin eta trebetasunarekin konfiantza irabazten joango da eta errezelo hori galduko du.

Kontutan hartu behar dira haur bakoitzaren izaera eta nortasuna, egokitzapena gehiago edo gutxiago zailduko dituela, eta soilik maitasunarekin, pazientziarekin eta gogo onez gaintuko dira zailtasun horiek.

Hasierako beldurrak, kezkak eta errezeloak uxatzeko, oso komenigarriak dira beste adingabe batzuekin erlazionatzea, eta inguruko familietan edota hurbileko herrietan dauden beste haur sahararekin harremana izatea oso garrantzitsua da.

Ia egun osoa kalean ibiltzea ohituta daude, beste haurrekin jolas kolektiboak egiten dituzte, eta ez da positiboa hemen telebistaren aurrean denbora luzez edukitzea, etxetik irten gabe. Adineko pertsonekin errespetuz jokatu ohi dute, eta gehienetan, elkarbizitzarako arau berriak onartzen dituzte, nahiz eta batzuk (leku guztietan bezala) bereak ez diren arau eta ohituren aurrean burugogorak suertatu. Pazientzia eta umorea dira antidotorik onena. Haur sahararrak oso erneak eta adimentsuak dira eta oso azkar ikasten dute.

Harrera prozesua, errealismoz eta erantzukizunez hartu behar da. Haur sahararrek behar bezala egituratuta dauden familiak dituzte, gure harreman afektibo berberekin, eta herrialde gisa beren sentimendu propioa dute, beren duintasuna oso handia da herri gisa, eta, horregatik, guztiz debekatuta dago beste harrera, adopzio edo izapide mota baterako tramiteak hastera.

Harrera-familiek haurren eta saharar herriaren lagun direla irudikatu

behar dute. Ahal den neurrian, duela urte askotatik errefuxiatu kanpamenduetan biziraun direnei laguntza eta estimua adieraziz.

3.- ISTRIPUEN PREBENTZIOA

Ohituta dauden bizimoduak oso zaurgarri egiten ditu istripuekiko, eta atal hau oso gogoan izan behar dugu.

JARRERAK

- ★ Ez dituzte arriskuak ezagutzen.
- ★ Hasierako lotsa galdu ondoren, ausartak dira.
- ★ Interes handia dute taldeko jolasekiko.
- ★ Dena ikasi eta probatu nahi izaten dute.

ARRISKUAK

- ★ Oinetakoak eramateko ohitura gutxi dute, eta horrek intsektien ziztadak, lesioak, xiringekin edo beste objektu batzuekin ziztadak eta erorketak izateko arriskua sortzen die.
- ★ Basamortuan ez dago etxebizitzetako altura ezberdintasunik, leihoak, balkoiak eta babes gutxiko eskailerak zaindu behar dira.
- ★ Arreta berezia jarri behar da joko arriskutsuekin, hala nola, dardoekin, petardoekin, su artifizialekin...
- ★ Gainera arreta izan behar dugu patinekin, patinete eta bizikletekin ere. Seguruenik ez dute inoiz horietako bat frogatu, baina ez dute esango eta ausardiaz ekingo diete frogatzeari, eta horrek istripua izatea ekar dezake.
- ★ Kontuz ibili behar da aterkiaren erabilera desegokiarekin.
- ★ Hainbat kiroltarako duten trebetasun gutxi dela eta hauek praktikatzen diren momentuan sortu daitezkeen kirol-lesioekin harreta izan behar dugu.
- ★ Punta duten objektu zorrotzekin eta moztu egiten dutenekin, zauriak eragin ditzakete, erabilera ezagutzen ez dutelako. Gainera, kontuz ibili behar dugu intoxikazioekin (alkohola) eta substantzia pozoitsuekin. Baita gaizki erabilitako poxpolo, metxero, barbakoa eta suak sortu ahal dizkien erredurekin.
- ★ Etxean etxeko herramientak edota makinak baditugu, hala nola zulagailuak, zerrak... gorde egin behar ditugu, haurren esku egon ez daitezen. Era berean, kontuz ibili behar dugu elektrizitatearekin; nahiz eta orain kanpamentu guztietan elektrizitatea izan, ez dute behar adina kontrolatzen, eta entxufeekin, etengailuekin, luzagailuekin eta abarrekin jolastu dezakete. Arreta berezia jarri oinak bustita oinutsik ibiltzean.
- ★ Irteeratan, arreta jarri behar dugu kobazuloen esplorazioan, erorketetan eta galtzeko arriskuan.
- ★ Hirian eta herrian trafikoarekin edo zirkulazioarekin arazoak egon daitezke, seinaleak ezagutzen ez dituztelako (semaforoak,

oinezkoen pasabideak), zeharkatu aurretik bi aldeetara begiratzeko ohiturarik ez dutelako, espaloiak ezagutzen ez dituztelako, eta taldeka atera daitezkeelako, korrika eta presaka. Ez dakite zein diren abiadura-mugak, eta ez dute segurtasun-uhala eta kaskoa erabiltzeko ohiturarik.

ETXEAN

- ★ Erregai guztietatik babestu behar dira, eta manipulatzeko erakutsi behar zaie.
- ★ Elektrizitatekin ere babestu behar dira. Korrante elektrikoaren, entxufeen, etengailuen, plantxen, luzagarrien eta abarren arriskuak erakutsi beharko dizkiegu. Arriskutsua da edozein aparatu elektriko piztuta, bustita, oinutsik... ukitzea.
- ★ Kanean ibiltzeko arauak irakatsi behar zaizkio, ibilgailuek ez harrapatzeko eta trafiko-legeak betetzen irakatsi behar zaio, adibidez, autoan zinturoia erabiltzea (ez dute ohiturarik). Familiakoak eta lagunak ez diren autoetan ez joateko esan behar zaie.
- ★ Alkoholaren, tabakoaren eta drogen arriskuez ohartarazi behar diezue. Eta esan, ezezagun batek zerbait eskaintzen badio ez hartzeko.

4. – ELIKADURA

Saharar kanpamenduetako dieta Nazioarteko Laguntzatik jasotzen dituzten elikagaietara mugatzen da (ACNUR, Udalak, Elkarte Solidarioak eta beste Erakunde batzuk), eta ez da nahikoa ezta egokia kantitateari eta orekari dagokienez. Elikadura murriz eta desegoki horrek sortzen dizkien arazo fisiko eta immunologiko larriak eta hazkuntza kalteak, zuzenean egiaztatzeko aukera izan da ikerketa ezberdinetan.

Horregatik, ELIKADURA oso kapitulu garrantzitsua da haur hauek gure artean dauden bitartean osasuna berreskuratzeko. Gainera, bidaiatzen duten haurren adina 8-12 urtekoa denez, elikadura-premia handiak dituzten epean daude, garai honetan, jarduera eta garapena asko handitzen delako.

Horrenbestez, harrera familiei Elikadura orekatua eskeintzeko gomendioa luzatzen dizuegu eta egunero haurrek honako hauek hartzeko gomendatzen dugu:

- Haragia edo arraina
- Esnea edo esnekiak
- Barazkiak
- Frutak

Eta astean 2-3 aldiz:

- Arrautzak
- Lekaleak
- Pasta eta arroza

Ahal den neurrian, garrantzitsua da litxarreriak, opilak eta nutrizio-balio txikiko elikagaiak saihestea, nahiz eta malguak ere izan gaitzkeen, urteko gainerako hilabeteetan ez dituztelako.

Lehenengo egunetan normala da goserik ez izatea, apurka-apurka joango gara janari-kopuruak handitzen. Lasai egon jateko gogorik ez badu, gure otordu eta kantitateetara ohitu behar dute.

Pixkanaka joango da, bat-batean asko jango balu gaixotzeko aukera egongo litzateke eta gorakakoekin eta beherakakoekin hasi.

Arrazoi erlijiosoak direla eta, ez dute txerririk jaten, ezta txerrikirik ere. Beraien sinesmenak errespetatu behar ditugu, eta ez diegu eskeiniko.

5. - BISITA MEDIKOAK

Haur bakoitzak Osakidetzako txartela izango du, bere OTI zenbakiarekin eta erreferentziazko pediatrarekin.

Oro har, gure herrialdera datozen haur sahararrak osasuntsu daude, baina osasun-azterketa orokor bat egitea aurreikusita dago, saharar errefuxiatu kanpamentuetan egiteko aukerarik ez dagoelako.

Lehen Mailako Arretako Pediatrak eta Medikuak jakitun dira Saharako haurrak epe horretan gurean izango direla, eta haiei bakarrik dagokiela komenigarritzat jotzen dituzten azterketa osagarriak, analisiak, erradiografiak eta abar egitea. Onartezina da profesional horiek gomendatzen ez dituzten miaketak eskatzea.

Pediatrek badakite ohiko praktika medikoaren errutina jarraitu behar dutela. Saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik datozen haurren bizi-baldintzak kontuan hartuta, dagoeneko definitutako zenbait ezaugarri kontuan hartuta, patologiarik nagusienak bilatu beharko dituzte.

Miaketa fisikoaren eta azterketa osagarrien aurkikuntzen arabera, azterketa gehiago sakondu daiteke eta beharrezko espezialistei egin dakizkieke interkontsultak.

Azterketa medikoan eta azterketa osagarrietan jasotako funtsezko datuak, deribazioak edo interkontsultak, dagokion fitxan idatziko dira. Fitxa hori Oporrak Bakeaneko zonaldeko arduradunari emango diegu.

Probaren baterako baimenen bat sinatu behar izanez gero, horretarako baimendutako pertsona bakarra Fronte POLISARIOAREN

Euskadiko Ordezkarria dela jakin behar duzue. Beraz, informazioa eta dokumentazioa jasoko dira eta eskualdeko edo probintziako arduradunaren bitartez iritsiko zaio Fronte POLISARIOko Ordezkaritari.

Erabat debekatuta dago harrera familiak edo inguruko arduradunek sinatzea.

Ez da txertorik emango, saharar errefuxiatu kanpamentuetatik eratorritako txerto-txosten argirik ez badago; izan ere, dosi osatugabeak jasotzen dituzte eta txertaketa prozesuan kaosa eragiten dute.

ETA ORAIN ZER?

Hurrengo urratsa, dagoeneko egin ez baduzu, inguruko elkarte edota udalarekin harremanetan jartzea izango da. Arduradunak lehen bilera batera deituko zaitu. Topaketa honek zalantzak argitzeko, programa ondo ulertzeko, gure burua aurkezteko... balioko du.

Gurekin elkartuko den arduradunak galdetegi bat izango du, gure datuekin eta gure erantzun eta gogoetekin beteko duena. Hori guztia baliagarria izango da zuen familia harrera honetan parte hartzeko egokia den ala ez erabakitzeko. Egun gutxi barru emango dizu erantzuna.

Erantzunaren ondoren, egun batzuk izango dituzu harreran parte hartu nahi duzun ala ez erabakitzeko. Une honetan ez izan zalantzarik sortzen zaizkizuen zalantzak argitzeko.

Parte ez hartzea erabakitzen baduzu, eskerrak eman nahi dizkizugu honaino iristeagatik, eskerrak eman saharar herriarengana hurbiltzeagatik eta azken eskaera bat egiten dizugu: ez ahaztu irakurri eta ikasitakoaz, ez ahaztu saharar herriaz.

Parte hartzea erabakitzen baduzu, konpromisoak eta betebeharrak sinatzeko eta dokumentazioa tramitatzeko unea izango da. Lasai izan, inguruko arduradunak tramite guztian lagunduko dizu eta.

Bilera orokorreko hitzordua emango dizute. Bertan, bidaiaren alderdi orokorrez eta alderdi espezifikoez eta haurrak iristeko egunaz hitz egingo da. Nahitaezko bilera da, familia berri guztiak elkartuko gara bertan eta harremanak ezartzeko ere baliagarria izango da.

BIDAIAREN EGUNA

Arduraduna aireportura joango da uda inguruko herrietan igaroko duten haurrak jasotzera. Berak esango dizu non eta zein orduetan elkartuko zareten. Une berezia izango da, disfrutatu.

Kontutan hartu haurrak bidai luzea egin duela eta nekatua egoteaz gain, oso ordu gutxitan sentimendu kontrajarri asko izan dituela.

Maitasunez, pazientziaz eta bere tokian jarrita, positiboagoa izango da.

Disfrutatu uneaz eta behar izan ezker eskatu laguntza.

Ongi etorri Oporrak bakean abenturara!!